



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2010-02-06**

VIII. URTEA 1921. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Oria ibaiari «bizkarra ematetik» presa puzgarriaren inauguraziora

**TOLOSA** Kilometro bat eta 300 metro nabigagarri berriei esker kirol jarduera ugari egin ahal izango dira

**ERAKUSKETA** Garai batean presaren ingurua nolakoa zen ikus daiteke argazkien bidez Zerkausian behekaldean 2



Atzoko inaugurazioan jende ugari elkartu zen Zerkausian, udal ordezkariak barne. I. TERRADILLOS



Lizartzako Eskolako haurrek mozerro festa egin zuten atzo. E. EZEIZA

## Inauteri hotsak ari dira zabaltzen bazter askotan

**GIZARTEA** Lizartzan jaiak berrartu dituzte eta herri batzuetan kaldereroen bisita jaso dute 5

## Tolosaldeko Kalitate Turistikoa sartu dute

**TURISMOA** Eskualdeko ostatuaren eta jatetxeen artean 14 ziurtagiri banatu dituzte 3

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA  
IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>o</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Paganuño auzoa, 16 - ZIZURKIL

☎ 943 6914 78 Postu elektronikoa: 012041@hezkuntza.net



Zinta moztu ostean, agintariak ere arraunean itzuli ziren Zerkausira, TAKeko arraunlariekin batera, Korta eta Alijostes patroí zituztelarik. I. TERRADILLOS

## «Tolosari jada hondartza besterik ez zaio falta munduko hiriburu izateko»

**Azpiegiturak** » Atzo eguerdian inauguratu zuten Oriia ibaia presa puzgarria; honek onura asko ekarriko dituela diote.

### ERREDAKZIOA

Atzotik kilometro bat eta 300 metro nabigagarri ditu Oriia ibaia Tolosan. Atzo eguerdian inauguratu zuten jarri berri den presa puzgarria. 2009ko uztailean hasi ziren eraikitzen eta atzo amaitutzat eman zituzten lanak.

Azken egunetan, hainbat froga egin ostean, atzo inauguratu zuten presa puzgarria. Bertan izan ziren, Tolosako Udal ordezkari gehienak, Miguel Cavioces Espainiako Gobernuo Euskal Autonomia Erkidegoko delegatua eta Tolosaldeko Arraun Klubeko kideak.

Ekitaldiari Zerkausiren beheko aldean eman zioten hasiera. Jokin Bildarratz alkateak hartu zuen hitza lehendabizi, eta denei ongi-ettorria eman ostean, presaren inguruko hainbat datu agertu zituen. Honez gain, azaldu zuen, «orain

arte ez bezala», hemendik aurrera, Tolosa Oriarekin biziko dela. Izan ere, Tolosa duela urte gutxi arte ezaguna izan da papergintzaren-gatik, eta industria eredu hau jarraitzeak ondorio batzuk ere izan ditu. Besteak beste, ura oso zikina zegoela eta ibaiak kolore zuria zuela. Alkatearen hitzetan, «ibaiari bizkarra emanda bizi zen Tolosa». Baina hemendik aurrera horrela ez dela izango ziurtatu zuen, eta hainbat ekintzetarako erabili ahal izango delanabarmendu. Halaber, Bildarratzek ustetan, «jada gauza bakarra falta zaio Tolosari, munduko hiriburu izateko, hondartza».

Bestalde, Bildarratzek eskerrak eman zizkien Tolosaldeko Arraun Klubekoei. Hauek ia hamar urte eman dituzte proiektu hau bultzatzen, azkenik lortu dutelarik. TAK da Gipuzkoan, federatu fitxa gehien dituen taldea eta hemendik aurrera, entrenatzeko baldintza hobeak izango dute.

Tokiko Inbertsioetako Estatu Fondoaren bitartez finantzatu da presa. Hori dela eta, inaugurazio ekitaldian gonbidatu gisa parte

hartu zuen Miguel Caviocesek. Hau, Plan E deritzonaren bitartez Udalek jaso zuten diru kopuruaz mintzatu zen.

Agintariak mintzatu ostean, zinta mozketa ekin zioten. Horretarako, TAKeko arraunlariekin batera, eta Jose Luis Korta nahiz Sabino Alijostes patroí zituztela, presarantz inguratu ziren. Han eskualdeko arraunlariek eusten zuten zinta moztu zuten, ofizialki irekitzat emanaz gunea. Gero, denak arraunean hasi ziren berriro Zerkausira joateko.

### Presaren inguruko datuak

Joan den urteko uztailean hasi zen eraikitzen presa puzgarria. Arkaitza enpresa arduratu da lanez, eta 1.800.000 euro inguru behar izan dira hau finantzatzeko.

Presa puztean, uraren maila 80 zentimetrotan igotzen da, nabigagarritasun baldintzak nabarmen hobetuz. Denera, 1,300 kilometro luzerako distantzia lortuz. Hau da, lehen zegoen azalera baino %50

handiagoa. Honez gain, neurri berean igotzen da ibaiaren ur edukiera. Beraz, arrauna edota piraguis-moa bezalako kirolak praktikatzeko edota entrenamenduak zein lehiaketak burutzeko egungo baldintzak hobetzen dira.



Zerkausi azpian erakusketa ikusgai dago egun hauetan; ekitaldiari bertan eman zioten hasiera. I. TERRADILLOS

Aipatu behar da, 25 lagun aritu dira presa eraikitze lanetan. Halaber, zortzi lanpostu berri sortu dituzte proiektu honekin.

Udal ordezkariak azaldukoaren arabera, bi izan dira obraren helburuak, alde batetik, ezohiko uholdeen eragina murriztea, arriskua nabarmen txikituz. Bestetik, ibaiaren egoera hobetzea, herrita-

### Orain, 1.300 metro nabigagarri ditu luzeran ibaiak, eta ur lamina zortzi zentimetro igo da

rren erabilera eta gozamina areagotzeko.

### Erakusketa ikusgai

«Tolosako gune berezi honen historia erakusten duen argazki bilduma» ere atzotik bisitatu daiteke.

Zerkausiko beheko aldean dago jarrita erakusketa eta egun presa eraiki den ingurua duela urte asko nolakoa zen ikusteko aukera eskaintzen du.

### Segurtasun neurriak

Presa eta bere erabilpenaren inguruan segurtasun ohar batzuen berri eman nahi izan du Tolosako Udalak.

Hasteko, «erabat debekatuta dago Naparzubitik presa puzgarria bitarte ezarri den segurtasun-eremuan ibaira sartzea».

Bestalde, debekatuta dago ere, ibaira jaistea presa puzgarriaren behe aldera doan eremuan.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



## Inpernuko sarrera estali dute

**TOLOSA** ● Inpernu gaztetxeko sarrera atzo arratsaldean itxi zuten adreiluz bi langilek. Udaltzaina ere bertan egon zen eta hauen esanetan «epailearen aginduz» ari ziren lan

hori egiten. Asteazkenean, «udaletxeko peritua» izan zen bertan, ertzainez lagundurik. Txostena eskuetan, epaileak «eraikuntza erortzeko arriskuan» dagoela esan du. A. IMAZ



## Zumalakarregi kalea zabalik

**TOLOSA** ● Tolosako kolektorearen obrak bukatu dituzte, eta azken ukituak baino ez dira geratzen. Hori bai, Inauterietarako ez da eragozpenik izango Udaletik adierazi dute-

nez. Hain zuzen ere, atzo Zumalakarregi kalea zabaldu zuten autoentzat, eta kale hori eta Triangulo plaza elkartzen diren gunea dagoeneko irekita dago. I.T.

# Tolosaldea kalitatezko turismoan «eredugarri»

**Turismoa** ● Kalitate Turistikoaren ziurtagiriak banatu zituzten herenegun; guztira, 14 enpresek eskuratu dute.

**INIGO TERRADILLOS**

Kalitate turistikoaren lehen diploma banaketa ekitaldia egin zuten herenegun, Zizurkilén, Olentzotz ja-tetxean. Guztira, 14 ostatu eta jate-txeri banatu zizkieten ziurtagiriak, eta horrela, Tolosaldeko turismo-ari begira orain arte landutako il-doei, hau da, antolakuntza, dina-mizazioa, promozioa eta komer-tzializazioari «kalitatea ere gehitu zaie».

Pasa den urteko maiatzean ekin zieten eskualdean kalitate turis-tikoaren ziurtagiria lortzeko pro-gramari. Eusko Jaurlaritzaren In-dustria, Merkataritza eta Turismo sailak abian jarritako ekimena da, Basquetour, Turismoaren Euskal Agentziaren gidaritzapean eta Euskalit, Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren bidez. Azaroan egindako ebaluaketaren ostean 14 enpresek eskuratu zuten. Gerora, beste hainbatek ere lortu dute, eta bidean daudenak ere badira.

Olatz Ilarregi Tolosaldeko Tu-rismo sailaren arduradunak atzo eginiko ekitaldian azaldu zuen be-zala, «enpresei euren kudeaketa hobetzen laguntzea eta norako tu-ristikoaren kontzientzia sortzea»

dira ekimenaren helburu nagusi-ak.

Ziurtagiria lortzeko bidean for-mazio tailerrak egin dituzte, kalita-te teknikariaren bisitak izan dituz-te eta ebaluaketak gainditu dituzte aurkeztu diren enpresek. «Ziurta-giria lortu dutenek frogatzen dute saiatuz gero eskuratu ahal dela, eta eskertu beharra dago egin duten lana, izan ere, eurengatik Tolosal-dea Euskadiko kalitate turistiko-a-ren mapan jarri ahal izan dugu; ha-laber, programa hau eskualdean garatzeko ezinbesteko laguntza izan dira Eusko Jaurlaritzaren Tu-rismo saila, Euskalit, Basquetour eta Goiturreko Nikolas Osinalde eta Ander Lizaso», azaldu zuen Ilarregik.

### «Etokizuneko erronka eta etengabeko lana»

Jokin Bildarratz Tolosaldea Gara-tzeneko lehendakaria kalitateak turismoan duen garrantziaz min-tzatu zen; «bisitariak ostatuan, ja-tetxean, museoan... izan duen es-perientziaren arabera gomenda-tuko du lekua, horregatik zaindu beharra dago, eta gainera, oso ga-rrantzitsua da arlo honetan lanean ari diren guztiak edukitzea ideia hori buruan». Horregatik, kalitate-ak «etorkizuneko erronka» izan behar duela esan zuen, eta «eten-gabe» jarraitu behar dela lanean.

Bildarratzek ere esker hitzak izan zituen bai ziurtagiria lortu du-ren guztientzat, bai eta eskualdean



Herenegun banatu zituzten kalitate turistikoaren ziurtagiriak, Zizurkilgo Olentzotz ja-tetxean. I. TERRADILLOS

kalitatearen programa aurrera eramaten lagundu duten guztien-tzat ere.

### Tresna lagungarriak eskura

Ziurtagiria lortu duten 14 enpre-sen izenean Astelena jatetxeko Pe-llo D'oyharzabalek hitz egin zuen. «Programaren hasieran kezka izan genituen arren, segituan kon-turatu gara lagungarri diren tres-nak gureganatzen joan gara», esan zuen, eta kalitatearen bidetik lanean jarraitzeko garrantzia azpi-marratu zuen, lagundu dieten guz-tiei eskerrak ematearekin batera.

Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza sailburuordea Pilar Zorrilla ere izan zen atzoko ekitaldian. Ziurtagiria lortzeko guztiak eginiko ahalegina eskertu zuen, baina horren ondorioak, bai banaka bai eta orokorrean ere, na-barituko dituztela esan zuen. Ha-laber lanean jarraitzea gomenda-tu zituen guztiak.

14 ziurtagiri banatu zituzten he-renegun, baina zenbaki hori han-dituz joango da, hori lortzeko bide-an lanean ari baitira turismoarekin loturiko hainbat enpresa.

### » ZIURTAGIRIA JASO DUTENAK

- Lete nekazalturismoa.
- Korteta nekazalturismoa.
- Benta-Aldea pentsioa.
- Iriarte jatetxea.
- Eluska jatetxea.
- Arandia jatetxea.
- Iturri Goxo jatetxea.
- Plaza Etxeberri jatetxea.
- Usabal sagardotegia.
- Eguzkitza sagardotegia.
- Patxine jatetxea.
- Larritz Gain jatetxea.
- Tolosaldea Tour turismo bulegoa.
- Astelena jatetxea.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Villabona.** Txermin auzoan etxebizitza alokatzen da. Erabat kanpoaldera begira. Berogailu sis-tema zentrala. 75 m<sup>2</sup>. Aukeran ga-rajera ere alokatu daiteke. 680 19 2772.

### LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila dabil: pertsona helduak zaintzen, baserriko lanak egiten edota beste edozertan lan egiteko prest dago bera. Interesa duenak deitu dezala telefono zenbaki honetara: 679 80 38 70.

### EMAKUMEA

Emakumezkoa be-har da goizez eta arratsaldez etxe-ko lanak egin eta haurrak zaintze-ko. Interesa dutenek deitu dezate-la 615 76 74 34 telefono zenbakira.

### ESKAITNTZA

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbita-sunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Tele-fono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Be-len).

## Asvinenea eskolak gazteentzako antzerki talde bat osatu nahi du

**Aduna** » Irakaslea Maider Bartolome da eta gorputz adierazpena, ahotsa eta interpretazioa landuko dituzte.

### E. MAIZ

Asvinenea, gazteentzako antzerki talde bat osatu nahian dabilta ongi pasatzeko helburuarekin. Jorratuko dituzten gaien artean, interpretazioa, ahotsa eta gorputz adierazpena daude. Gorputz heziketaren barmean, kontzentrazioa, arnasketa, erlaxapena, beldur eszenikoa, memoria, autoestimua, bost zentzuak, irudimena...daude.

Irakaslea Maider Bartolome izango da. Ikastaroa bukatzerakoan, gazteekin errepresentazio txiki bat egingo dute publikoaren aurrean erakusteko. Oraindik eguna eta ordua zehaztu gabe daude, hori izena ematen duen jendearen araberaz izango litzateke. Harremantarako 647 201 401 telefono zenbakira deitu behar da.

## Intxurreren Lurraldekakoa garaipen beharrean

### ERREDAKZIOA

Alegiako Intxurreren Lurraldekako taldea bigarren garaipenaren bila joango da asteburu honetan, igoera fasearen baitan. Partida bat irabazi eta bi galdu ditu oraingoz. Ligan lehenengo postua lortu bazuen arren, igoera faseko maila altuagoa da eta zailagoa egiten da, beraz, garaipena lortzea.

Jubenilak eta kadeteak kopa jokatzeko ari dira, maila pattala erakutsiz. Bestalde, infantilak Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko ari dira. Infantil mailakoa nesken taldeak ligako azken partida izango du asteburu honetan. Horren ondoren kopa jokatuko dute.



lazio lehiaketan parte hartu zutenen artean sarituak izan zirenak. A. IMAZ

# Martxan da Hizki-marrazki ipuin marraztuen lehiaketa

**Anoeta** » Udalak, ikastolarekin elkarlanean antolatzen du lehiaketa; lanak aurkezteko azken eguna martxoaren 5a da.

### ENERITZ MAIZ

Ipuin marraztuen lehiaketako aurtengo edizioa jadanik martxan da. 2006. urtetik egiten dute lehiaketa hau eta Anoetako Udalak, Ikastolarekin elkarlanean antolatzen du. Herritar guztiei zuzenduta dago eta Udaletik bereziki, gazte eta helduen maileri deialdi berezia egin nahi die.

Antolatzaileek, aurreko edizioetango gazte eta helduen oso partaide-tza eskasa dagoela ikusi izan dute eta horregatik, deialdi berezia egin nahi diete maila horretako herritarrei. Idaztea gustuko izatea edo marrazkilarire beba izatea nahikoa da ipuin marraztu bat egin ahal izateko. Parte hartu nahi duenak, ez du zertan bi alorretan ona izan beharrik, nahikoa du idazten edo marrazten ongi moldatzen den lagun bat bilatzea edota animatzea.

Eta Hizki-Marrazki lehiaketaren helburuetako bat hori bera da, hau da, elkarlana bultzatzea, eta norberaren trebetasunak besteekin konpartitzea.

### Bete beharreko baldintzak

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko ezaugarri nagusiak hauek dira, baina, hala eta guztiz ere, oinarri osoak udaletxean edo kiroldegian eskatzea gomendatzen dute. Zortzi urtetik gorako Anoetako Ikastolako ikasleek eta

### » HIZKI-MARRAZKI IPUIN LEHIAKETA

#### Oinarriak

- **Lanak.** Bakarka edo binaka aurkez daitezke.
- **Nork.** 8 urtetik gorako Ikastolako ikasleek eta Anoetan erroldatutako edonork.
- **Non.** Ikasleek Ikastolan, gainontzekoek udaletxean edo kiroldegian.
- **Nola.** Ipuinak marraztuak izango dira eta euskaraz.
- **Epea.** Martxoak 5a.
- **Sari banaketa.** Apirilaren 23an.

Anoetan erroldatutako pertsona guztiek parte har dezakete.

Ipuinak marraztuak izango dira, hau da, euskarazko testuz eta marrazkiez osatuak. Ipuinak baloratzen garaian, testuari eta marrazkiei garrantzi bera emango zaie.

Lanak bakarka edo binaka egin ahal izango dira. Ipuinak, eskuz edo ordenagailuz idatzita egon daitezke. Hamabi urte bitartekoek, gutxienez orrialde bat eta gehienez hiru aurkeztu beharko dituzte, marrazkiak barne. Hamabi urtetik gorakoek berriz, gehienez lau orrialde izango dituzte.

Behin lanak amaituta, ikasleak direnek Ikastolan aurkeztu beharko dituzte eta gainerakoek, udaletxean edo kiroldegian utzi beharko dituzte. Ipuinak aurkezteko azken eguna, martxoaren 5a, ostirala izango da. Lan guztiak jaso ostean, aukeraketa bat egingo dute eta lan saritu guztiak liburuxka batean argitaratuko dituzte.

Sari banaketa apirilaren 23an, ostiralez egingo da, Liburuaren Nazioarteko Eguna erekin bat egin.

## Laburrak

### Ibilbide luzea eta motza egingo dituzte bihar

**VILLABONA** » Eguraldi txarra zela eta atzeratu ziren ibilbideak bihar izango dira. Bata Zizurkil eta Villabona artean izango da eta 11:00etan hasiko da. Bestea, 09:30ean hasiko da eta Amasa-Villabona inguruko mendietan zehar burutuko da. Bi ibilbideak, Zizurkilgo Ikastolan hasi eta Txerminen amaituko dira. Urtero bezala, parte hartzaileek, Ibilaldi Neurtua bukatu ostean, hamaiketako bikaina dastatzeko aukera izango dute. Argazki lehiaketako argazkiak ere Txerminen ikusgai izango dira eta irabazleen izenak ere bertan eza-gutzeraz emango dituzte.

### 'Egunkaria' ren aldeko materiala gaur plazan

**ANOETA** » Gaur, goizean goizetik hasita egun osoan zehar Sokadantza eguna ospatuko dute anoetarrek. 11:30etik aurrera, herriko plazan *Egunkariaren* aldeko materiala jarriko dute eta bertan materiala erosteko aukera izango da.

### Emakumeei zuzenduriko autodefentsa ikastaroa

**ZIZURKIL** » Udalak, emakumeei zuzenduriko autodefentsa ikastaro trinkoa antolatu du Atxulondo kultur etxean. Maitena Monroy izango da irakaslea eta orduetgia 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era izango da. Izena otsailaren 20a baino lehen eman beharko da Aurrera Plazako Udal bulegoetan. 35 euro ordaindu beharko da ikastaroa baina egun horretako bazkaria ere barnean sartzen da.

### Asteartean 09:00etan Ohiko Bilkura egingo dute

**IBARRA** » Hilaren 9an, goizeko 09:00etan ohiko batzarrera deituko daude eta hamar puntuko gai ordena jorratuko dute: Akta eta alkate dekretuak, 2010eko Aurrekontu orokorra eta Aurrekontua egikaritzeko Udal Araudia, Udal plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda. Baita Tokiko zergen aldatzea eta herri bidean ibilgailuak aparkatzeko ordenantza arauemailearen (TAO) aldatzea eta izanera pertsonaleko datuekin fitxategi bat sortzea izango dira eztabaidatu eta onartzekoak.

### Talai dantzan parte hartu nahi dutenen entsegua

**AMEZKETA** » Inauterietan ez dira Tolosan bakarrik ospatzen. Amezketan, hilaren 14 eta 15ean, hau da, igandean eta astelehenean ospatuko dituzte. Talai dantzariak kale eta baserrietan barrena ibiliko dira giro alaitzen. Bertan parte hartu nahi dutenek entsegua izango dute hilaren 9an. Gazte lokalean 19:30ean elkartuko dira.

**LASKORAIN IKASTOLA**  
Lazioa gurea gurea: ikaslariren 2008 110a

**KALITATEKO HEZIKETA EUSKALDUNA ETA ELEANITZA 0-18 URTE**

www.laskorainikastola.net | info@laskorain.net | 943 867 127

**Inauterietako mahaia eska dezakezu!**

- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Kazuelak
- Oilasko erreka

**ERROTA**  
taberna

Deitu:  
**943 248 489**



Lizartzan mozorroen festa egin zuten atzo herriko Eskolako haurrek. E. EZEIZA

# Inauterietako ospakizunak eskualdeko bazter askotan

**Gizartea** » Egun batzuk falta dira Tolosako Inauteriak iristeko, baina bien bitartean Lizartzako Inauteriak eta kaldereroak ditugu berotzen joateko.

## ERREDAKZIOA

Ostegun Gizeneko txupinazoaren zain izango dira tolosarrak, baina lehenago ere badago zer ospatua eskualdean. Lizartzan pasa den asteburuan hasitako Inauteriak berriartu dituzte eta herri askotan ere kaldereroen zartagin hotsen burrunba entzun dute jada.

Izan ere, Tolosara gaur 19:00etan iritsiko da Kaldereroen konpartsa. Lehenik eta behin Plaza Zaharrean elkartuko dira guztiak eta udaletxeko balkoitik botatako pregoia entzun eta gero, denak kalejiran alde zaharreko kaleetan barrena ibiliko dira.

Tolosa bisitatu baino lehen, hala ere, Iruran, Anoetan, Zizurkilena eta Ibarran izan ziren kaldereroak. Ibarran Hauspoa Kultur Elkarte-koak antolatu zuen kalejira eta Pasaia txarangara ere izan zuten.

Iruran ere musika izan zuten lagun, Bonberenea txarangarena, hain zuzen. Kulturunetik abiaturik ziren guztiak eta ondoren txistorrada ere izan zuten bertaratutako guztiak. Anoetan ere Loatzok ban-

dak jo zuen eta herriko plazatik abiatuta astindu zituzten zartaginak. Goiztiarrenak, dena den, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxe-koak izan ziren. Hauek bazkaldu eta gero atera ziren kalera eta ondoren merienda ere izan zuten.

## Inauteriak

Aipatu bezala Tolosako Inauteriak iritsi bitarte Lizartzakoekin berotzen hasteko aukera ere badago. Atzokoan mozorro festa izan zuten herriko Eskolak antolatuta eta ondoren herrian zehar kalejiran ere atera ziren.

Gaurkoan, berriz, goizago hasiko dute eguna. 07:00etan kalejira egingo dute txistulariekin eta 09:30ean gosalduko dute Etxe Zahar baserrian. 12:00etan egingo dute berriz ere kalejira eta bazkaldu eta gero, 18:00etan, sagardo dastatzea egingo dute. Talogileak ere izango dira eta baita bertso poteo ere. Bukatzeko 3gabe2 taldearen kontzertua izango da Zezen Gorri gaztetxean, 00:00etatik aurrera.



Zizurkilgo kaldereroak izan ziren goiztiarrenak; Ibarran plazan elkartu ziren handik kalejiran joateko. I. TERRADILLOS-A. IMAZ



Anoetan eta Iruran ere kaldereroen zartagin hotzak nagusitu ziren atzo. E. MAIZ



Atxik jolas-joko-kirolari!, atxik herriari!



Euskal Herriko zazpi lurraldeetako kirolariak lehen mugaria jarri dute Euskal Herria ofizialki ordezkatzeko ekimenean. 2009ko abenduaren 27an, Donostiako belodromoan, bost mila euskal herritarrek baino gehiago bat egin zuten haiekin.

**Egin dezagun bat guztiok!**



Erosi **DVDa** otsailaren **13an** eta **14an**



berria  
+ 8€ =



aukera ezazu,  
bizi euskaraz  
**berria**

**Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatutako JAIALDIETAN PARTE HARTZEKO:**

- ✓ 6-15 urte bitarteko neska-mutirik
- ✓ banaka, binaka edota taldeka, aurkeztu zuten guztiak abestia.

**IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA:**  
otsailak 26. ostirala

**DEITU - IDATZI:**  
943-593302 / 649 546 357  
posta@kantuzale.net

**zatoz kantari!**

**hitza**

**kutxa**

**2010**

**Gipuzkoako HAUR KANTARI JAIALDIAK**

Martxoaren 6an, larunbata,  
19:00etan  
USUKBAGO Sategi aretoan

Martxoaren 14an, igandea,  
18:00etan  
URRETxu ZUMARRAGAKO  
Labeaga aretoan



Iazko Sendi Ekintza eguna «oso arrakastatsua» izan zen nahiz eta eguraldiak ez zuen batere lagundu. I. TERRADILLOS

## Krosa eta txiriaren irekiera, Sendi Ekintza egunean

**Ibarra** » Iazko «arrakasta» ikusita erabaki dute aurten berriz ere egun osoko egitaraua prestatzea; gaur 11:00etan hasiko dute jai.

### REBEKA CALVO

Pasa den urtean egin zuten lehen aldiz Ibarra Sendi Ekintza Elkartearen eguna, eta parte-hartzea eta «arrakasta» ikusita berriz ere antolatzea erabaki dute. Gaur bertan izango da jai eguna.

Azken urteetan txiriaren irekiera eta «afari koskorra» besterik ez zuten egiten, baina aipatu moduan iaz egun osoko egitaraua prestatzea adostu zuten eta eguraldi oso txarra izan bazuten ere jende askok hartu zuen parte bai krosan eta baita bestelako tailer eta ekitaldietan ere.

### Eskerrak Tolosako Udalari

Sendi Ekintza Elkarteak ardura-dunek Tolosako Udalari eskerrak eman nahi izan dizkie, izan ere gaur San Bartolome plazan tailerak eta jokoak egiteko erabiliko duten karpa utzi die. «Kuriosoa da Ibarra diru falta aitzakiaz hartuta karpa ez utzi izana», gaineratu dute.

Zailtasunak zailtasun, hala ere,

egun osoko egitarau oparua antolatzea lortu dute. Iaz bezala «betiko jokoak, klasikoak» prestatu dituzte haurrentzat; aulkien jokoak, zaku karrerak, lokotx bilteta...

Era berean, Txixi Orbegozo margolaria ere gerturatuko da Ibarra txikienei aurpegiak margotzeko. Xaboi burbuila erraldoiak egiteko tramankulua ere egin dute antolatzaileek.

### Krosa eta txokolatada

Aurten ere haurrentzako krosa egingo dute arratsaldean. Lau maila izango dira eta oraindik parte-hartzaile kopuru zehatza ez bada-kite ere Ibarra Uzturpe ikastolatik bakarrik 110 haur aterako dira. «Tolosako ikastetxeetara ere za-

### » EGITARAUA

- **11:00.** Tailerak haurrentzat; aurpegi margotzea, xaboi burbuilak...
- **12:15.** Haur jolasak.
- **15:30.** *Es kob a* txapelketa elkartean bertan.
- **16:00.** Kros herrikoia.
- **17:30.** Txokolatada.
- **18:00.** Sari banaketa.
- **18:30.** Sagardoaren txiriaren irekiera Jexux Mari Mujika aizkolaria-riaren laguntzarekin. Luntxa denentzat, eta bertsolariak, musika...

baldu genuen deialdia, batez ere goiko kategorietan, 12 edo 13 urtekoen artean, gutxiago animatzen direlako. Ikusiko dugu zenbat animatu diren Tolosatik», esan dute antolatzaileek. Krosa eta gero sari banaketa egingo dute eta ondoren txokolatada eta bizkotxo banatuko dute guztien artean.

Aurtengo egitarauaren berrikuntzarik ere bada, izan ere lehen aldiz *Es kob a* txapelketa antolatu dute. «Batez ere, helduei begira antolatu dugu, mundu guztiak hartu dezake parte, baina gure asmoa elkarte helduenak ere festa egunean parte hartzea animatzea izan da», argitu dute. Hiru sari banatuko dituzte eta parte hartzea doako da.

### Mujika aizkolaria omenduko dute

Eguna bukatzeko ohiko txiriaren irekiera egingo dute elkartean. Aurtengoan herriko Jexux Mari Mujika aizkolaria omenduko dute gainera eta bertsolariak ere izango dira. Honekin batera, aurretik azaldu nahi izan ez duten bestelako sorpresarik ere izango dela esan dute.

Jai eguna ondo bukatzeko txiriaren irekiera eta gero luntxa izango da denentzat, elkarte ki-deentzat zein herritarorentzat.

## LKS-ri esleitu diote balio anitzeko eraikinaren lanen proiektua

**Ibarra** » 151.000 euroko aurrekontua ere onartu dute proiektuaren idazketa eta eraikuntzaren zuzendaritza burutzeko.

### ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak LKS-ri esleitu dio Behekobiden egingo duten balio anitzeko eraikinaren proiektuaren idazketa eta baita eraikuntzaren zuzendaritza ere, horretarako 151.000 euroko aurrekontua ere onartu du.

Iazko urte amaieran adostu zituzten lehiaketa publikorako baldintza-pleguak eta proposamenak aurkezteko epea ere orduan ireki zuten. Guztira 14 izan ziren izena eman zuten lehiakideak.

Txelo Romeo Ibarra alkatea «pozik» agertu da jasotako erantzunarekin, «Gipuzkoan bakarrak diren ezaugarriak izango dituen zentro honek interes handia sortu duela esan nahi baitu horrek».

Era berean, Udalak LKS zergatik aukeratu duen azaldu du: «Irisgarritasunaren garapen integratzen planteamendua», aurkeztu dutelako, besteren artean.

«Beste alderdi batzuen artean, Eguneko Zentroa lurraren mailan ipintzea ezinbesteko baldintza zen, horrela erabiltzaileek igogailua erabili behar ez izateko», gaineratu du.

Era berean, diseinua, urbanizazio planteamendua, energia ustiapena, jasagarritasunarekin duen konpromisoa eta ingurumenarekiko errespetua ere hartu ditu kontutan.

### Eguneko Zentroa, Erretiratuaren etxea eta apartamentuak

Erabilera anitzeko eraikinean 20 bat plaza izango dituen Eguneko Zentroa egingo dute batetik, gaur egun San Inazio auzoan aurkitzen den Erretiratuaren Etxea, bestetik, eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako alokairu sozialeko 28 apartamentu, azkenik. Dagozkie lur azpiko aparkalekuak ere izango ditu.

Txelo Romeo, Ibarra alkatearen hitzetan, 2012 urterako amaiteza aurreikusita dagoen azpiegitura honek «eragin mesedegarriak izango ditu ibartar guztientzat, behar gehien duten gure gizarteko kolektiboak, gazteak eta adinekoak, baliabidez hornituko direlako». Eraikinak 4.200.000 euroko aurrekontua izango du.

### «Bizi kalitatea hobetuko du»

Finantzioari dagokionez, Txelo Romeoren hitzetan «inbertsio ahalegin handi bat eskatzen digu proiektu honek, baina arrazoituta dago ibartarren bizi kalitatea hobetuko duelako».

«Gainera, mantendu diren etengabeko kontaktuei esker, Eusko Jaurlaritzak obra honentzat diru kopuru garrantzitsu bat bideratu dezan lortu dugu», gaineratu du.

Zehazki, aurrekontuan jasotako 4.200.000 euroetatik, Euskal gobernuak 1.120.000 euroko dirulaguntza emango du apartamentu dotzionalentzako ekipamenduak erosi eta instalatzeko.

Laguntza honekin batera, Eusko Jaurlaritzak 30 urterako 1.800.000 euroko mailegua emango dio Ibarra Udalari, eta azken honek lehen 10 urtetan zehar ez du interesik ordaindu beharko.

Falta diren 1.300.000 euroak Udalak hartuko ditu bere gain, banku-mailegu baten bidez. Eragiketa honen ondorioz, udal-kutxak urtero 300.000 euro bideratu beharko ditu maileguak ordaintzeko, zorpetzea %2tik %5era igoko delarik. Kopuru hau 2011n hasiko da ordaintzen.

### » DATU ERABILGARRIAK

- **Aurrekontua.** 4.200.000 euro; horietatik Eusko Jaurlaritzak 1.120.000 euro emango ditu eta baita 1.800.000 euroko mailegua ere bestetik. Gainontzeko dirua (1.300.000 euro) banketxe bati eskatutako mailegu bidez eskuratuko du.
- **2012.** Aurreikusitakoaren arabera 2012. urtean amaituko dute erikina.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

## G Gutunak

### Zentzumena

Argi dago egun gure planeta jasan ari den hondamendiaren aurrean zerbaitegin behar dela. Badirudi Tolosako herria nagusi dela jasangarritasunaren arloan, izan ere, Agenda 21 dela medio dagoeneko bisari jaso ditu.

Alde batetik, Forum Ambiental fundazioak Bartzelonan eman zion *Hiri jasangarria* saria. Udalerriak 5000 biztanletik gora izan behar ditu lehiaketahonetan parte hartzeko eta bi urteko epean jasangarritasunera zuzendurik emaitza onak izan eta garapen jasangarriarekin konpromiso politiko argia daukaten jarduerak aurrera eraman behar dituzte.

Bestalde, *Tolosa oinez* proiektuarengatik *Konama* saria jaso zuen Sevillan egindako garapen iraunkorraren jardunaldietan. Sariaren helburua Udal txiki eta ertainen ekimen jasangarriak baloratzea zen.

Honek erakusten digu gure politikoen ingurugiroarekiko kultura nolakoa den. Adibide argia dugu egungo Tolosako alkate eta Eudel-eko lehendakaria denarena. Honek saikera guztiak egin baitzuten AHT-ren gaia Agenda 21-ean sartu ez zedin. Nahiz eta jakin agendan lan egiten duten talde eta elkarte ezberdinek gai honekiko ziztuzen zalantzak eta informazio gabeziak handiak zirela.

Duela gutxi, Eudel-eko lehendakariak politikoa arazoei soluzioak emateko daudela zioen eta ez sortzeko.

Espainiako Auzitegi Nazionalak EHU-ko Ekonomia katedradun bati agindutako txostenean, Euskal Y-ak errentagarritasun ekonomikorik eta sozialik ez duela

### Agenda 21-ean AHTren gaia sar ez zedin saikera guztiak egin zituen Tolosako alkateak

izango ondorioztatu zuen, ez dituela arazoak konponduko. Gainera, merkantiak garraiatzeko ez duela balio eta EAE-ko hiru hiriburuek baino ez dituela lotuko zioen.

Ibarretxeren gobernuak ere Euskadiko mugikortasunari buruzko txosten bat argitaratu zuen eta honen arabera, eskualdeen arteko mugikortasuna %97-koa omen da, hiriburuen artekoa aldiz %0.45. Orduan zertarako eta zergatik AHT-a? Non daude alkateak aipaturiko arazoaren soluzioak?

Datu hauekin soilik, zentzumen pixka bat duen edonork, mahai ganean jarriko du proiektu honen bideragarritasuna. Izan ere, beste datu askoren artean, jakin badakigu AHT-aren neurrigabeko energia kontsumoa eta zarrastelkeria dela medio, urtegi handiak, zentral

termikoak eta energia nuklearren aldeko apustuak indartzen dituela.

Guztiok dakigu horrela ezin dugula jarraitu baina ez dugu ezertxo ere egiten eragozteko. Munduan ehunka milioi pertsona gosez hiltzen diren bitartean eta multinazionalak hirugarren munduko herrialdeen kostura bizi diren honetan, euro bat gari ekoizteak 12 euroko energia kontsumoa suposatzen du. Badira ordea errendimendua energiarekin inolaz ere erlazionatu gabe diruaren bidez neurten dutenak.

Energiak ordea badu euroak ez duen berezko balio bat. Horrela, hainbeste gauza ekoizteko erabiltzen dugun energia kantitatea

kontrolatu beharko genuke, ekoizpen gehienak alferrikakoak baitira eta etengabe gure burua engainatzen ari baikara. Erabili daitekeen energia bakarra eguzkiak ematen digunarena da, gainontzekoak kutsakorrek dira eta iraunkortasun puntu bat bilatzen jardun beharko genuke. Gainera, gizarte honetan diru gehiegi darabilkigu esku artean eta dirua beste kutsatzaile batean baino ez da bilhurtu.

Politikan gastatzen den energia ere oso errentagarritasun baxua du eta sistema aldatzeko gastatzen den denborak ez du konpensatzen. Izan ere, askok eta askok ez dugu sinesten aldaketa handietan, pixkanaka sistema aldaraziko duen aldaketa pertsonaletan bai-

zik. Horretarako ezinbestekoa da egiten ditugun ekintza asko egozkiak ez direla onartu eta planteamendu pertsonalen bidez sare zabalagoak sortzea.

Guzti hau dela eta, boteredun jauntxoak zuzentzen natzaizue etika gehixeago ez letorkizuela gaizki esanez, bai lurraren eta baita

### Hitz egin al dute eskualdeko lurjabeekin, AHTren desjabetze akten inguruan?

gizartearen zainketaerikoa ere. Beraz, ekintza hauek lantzeko duzuen denbora modu eraginkorren banatzea ez legoke gaizki.

Ezin aipatzeke utzi Tolosako Udalak partaidetzarako hiru jardunaldi antolatu izana, esanez noski, urteak daramatzatela prozesu parte hartzaileak bultzatzen. Noiz bultzatu da kontsulta bat proiektu honen inguruan? Zerbaite esan beharko du Udalak, jakinda gainera alkatea Eudeleko lehendakaria dela, ezta? Hitz egin al dute eskualdeko lurjabeekin AHT-aren desjabetze akten kontuen inguruan?

Bukatzeko, gaur, otsailaren 6, Tolosan egingo den manifestazioan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztet; Tolosa, Tolosaldea eta inguruko herritar guztiak.

**Eskualdeko beste kaltetu bat.**



Gaur AHTren aurkako manifestazioa egingo dute Tolosan, 17:00ean. N. URIBIZU

# Eskualdeetako hainbat kirolariek pilota eta sokatira lehiak dituzte

**Kirola** » Frontoi Motzeko Paleta Goma Txapelketa bihar abiatuko da Alegian, bertan Nagore Arozena lizartzarra egongo da.

### ERREDAKZIOA

Asteburuko kirol jardueretan sokatira eta pilota azpimarratu behar dira, Ibarako tiralariek eta Leitzaoko pilotari gazteek lehia desberdina jokatuko baitituzte.

### Gaur, Ezpeleta; bihar, Zeberio

Asteburu honetan bi saio jokatuko dira, goma gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketan, bosgarren eta seigarren saioak hain justu ere. Gaur, hilak 6, gizonen 560 eta emakumezkoen 500 kiloko Txapelketak hasiko dira. Bihar, hilak 7, gizonen 640 kiloko txa-

pelketa erabakiko da, jardunaldi bakarrean.

Ibarra taldeko ordezkariak, emakumezkoak, gaur Ezpeletara joango dira, bertan ospatuko den lehiaren parte hartzera. Lapurdiko herrian, 17:00etan hasiko dira tiraldiak, merkatu ondoko kirol gelan. Ibararren aurkariak Badaioz, Beti Gazte eta Sakana izango dira.

Bihar gizonen txanda izango da. 640 kiloko txapelketa jokatuko da Zeberio kirolalekuan, 12:00etatik aurrera. Bertan egongo da Ibarra Sokatira Taldea. Aurkari gogorak izango dituzte gure tiratzaileek: Abadiño, Barrundia eta Amairu.

### Nafar Jokoak eta Euskal Herriko Liga

Aurrerako pilotariak Amazabal kirolalekuan ikusteko aukera egongo da gaur, hilak 6. Nafar Jokoeta-



Frontoi Motzeko Txapelketa atzo aurkeztu zuten Donostian, bertan zeuden Arozena eta Urkizu. HITZA

ko bost partida jokatuko dira Leitzaan, 10:00etatik aurrera.

Egun eta leku berean, 12:00etan, Jon Jaunarenak Euskal Herriko Ligako partida jokatuko du Eibarren aurka, 22 urtez azpikoetan mailan. Tolosan berriz anaia egongo da, Xabier Jaunarena. 10:00etan hasiko den jaialdiaren bigarren partida jokatuko du leitzar gazteak, kadeteen mailan, Gure Pilota

elkarteko kide baten aurka. Paleta gomari dagokionez, Saioa Aristorena eta Iera Agirre leitzarrek Gasteizen jokatuko dute gaur, Pradera-Arzamendiren aurka. Pilota jaialdia 16:00etan hasiko da.

### Frontoi Motzeko Txapelketa

2010eko Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sari Nagusiari atzo aurkeztu zuten

Donostian. Bertan, Nagore Arozena lizartzarra eta Itsaso Urkizu berastegiarrak hartuko dute parte. Lehen jardunaldia bihar jokatuko da Alegian, 11:00etan. Arozena Etchelecurekin jokatuko du, Muneta-Serreren aurka. Itsaso Urkizuk hurrengo asteburuan ekingo dio Frontoi Motzeko Txapelketari, Zumarragan jokatuko den bigarren jardunaldian.



12°  
8°

GOIZA 13°  
ARRATSLAINOTUTA 13°  
BEROENA 13°  
HOTZENA 7°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leizalde:** 687 410 118. leizalde@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Zinema

■ **Villabona.** *Lluvia de albondigas* filma gaur, hilak 6, 17:00etan. 19:30ean eta 22:30ean, aldiz, *Teniente corrupto* ikusi ahal izango da. Bihar, hilak 7, 17:00etan *Lluvia de albondigas* eskainiko dute zinean eta 19:30ean berriz *Teniente corrupto*.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943-67 0128.  
■ **Lekunberri.** Mendi M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## 'Goizero' abestu, eta aurrera!

**TOLOSA** ● Tolosako Hodei Truk abesbatzak aurrera jarraitzen du ETB1ko *O happy day* lehiaketan. Lehenengo saioan nominatu egin zituzten eta arriskuan ere egon ziren, baina bigarren saioan *Goizero* kanta eskaini eta jarraitzeko txartela lortu zuten. Gaur, hilak 6, 22:00etatik aurrera ikusi ahal izango da saioa, eta tolosarrek Abba taldeko *Money Money!* izeneko kantua eskainiko dute. Marta Olea bakarlarri moduan aritu zen eta kritika onenak jaso zituen epaimahaia osatzen dutenen eskutik, hori azaldu dute abesbatzatik. HITZA

## A Agurrak



**Animo attona! Maite zaitugu!**

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

**agurrak agurrak**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



Tolosako inauterietarako  
eskaintza berezia

**angula kiloa 390€**

arraindegia honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 674 406  
Korreo 33 - TOLOSA

fiesta on guztioi!